

EUSKAL HERRIAREN IKUSMOLDE ALEMANAZ

Joxe Azurmendi Otaegi
Filosofiako Doktorea

XI Congreso de Estudios Vascos:
«Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa». Donostia, 1991
ISBN: 84-87471-35-8
Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992, p. 291-300

Ikusmolde aleman bat, ez nintzateke ausartuko esaten, badagoerik Euskal Herriaz. Segun zein jendek eritzi desberdinak du, edo ez du batere. Informazioa egon, badago. Baina jeneralean ereti desberdinen arabera desberdinak (kirolak, turismoa, biolentzia) eta Euskal Herriaz edo Euskal Herriko zeren batzuek egunkarietan barreiatuiko informazio zatikazkoak apenas lortzen duela, esango nuke, Euskal Herriaren irudi osatu edo kontzeptu bat jendeari ematea. Bidezkoa, bestalde: guri ez zaigu bestela gertatzen urrutu samarreko beste edozein herri guretzat estrainorekin.

Albiste irristakorra utzi eta, balorazio iraunkorragoen hila, euskaldunei buruz iharduteko abagune obligatuak bezala izaten diren puntu batzuetara mugatuko naiz hemen (1). Berrio aitortzeko: Euskal Herriari buruzko interesik handiena etnografia, hizkuntzalaritza eta horrelako sailetan aurkitu ohi da, baina justu espezialisten sail horietaz ez gara orain interesatuko. Oso modu sinplean aritzeko, eskematxo bikoizti bati jarraituko natzaio: Alemanian Euskal Herria nolabait aipatu beharra egoten den bi arlo miatuko dut (San Inazio eta Gernikako bonbaketa); propio Euskal Herriaren azalpena publiko alemanentzat izan nahi duen bi saio ikusiko dut gero; azkenik, Santiago bidearen beste bi azalpen aipatuko dut, iragaitzean bederen gaiak Euskal Herriari ukitzen duelako. Baina, hasteko, alemanei Euskal Herria zinez deskubritu diena gogoratuz hasiko gara.

WILHELM VON HUMBOLDT

Humboldt ez da lehena izan Euskal Herriari buruz idazten alemanentzat. Baina lehen eskuko berri autentikoa euskaldunei buruz biltzen (2), aurrena bera izan dela, aitortzeko, Aro Garaikidean, aldi honetako interesen mailan.

Laburki, baina sinpatiaz, Herder-ek aipatuak zituen lehentxeago (1791) euskaldunak, Ipar Europako herriez ihardutera zoala (3). Iragaitzean bezala bakarrik, beraz, eta gutxie-

(1) Gaia interesatuz gero, ik. «Euskadi-Alemania bion literaturan eta filosofian», in: M. TUNÓN DE LARA (ed.), *Guernica: 50 años después (1937-1987)*, Servicio Editorial UPV 1987, 269-297.

(2) Hain zuzen ordura artekoak baino ideia zehatzagoak eta zuzenagoak emateko asmotan hasi da bera euskaldunei buruz idazten: «(...) richtigere und genauere Begriffe über die Vaskische Nation und Sprache zu geben, als jetzt herrschend sind», cfr. WBG, *Werke*, II, Darmstadt 1986, 429. Ohartxo garrantzizko bat: Humboldt baitan *Vasken* (v eta k) Ipar nahiz Hegoa eta Nafarroako euskaldun denak adierazteko erabiltzen da: *Basquen* (b eta qu) Iparraldeko euskaldunentzat bakarrik.

(3) J.G. HERDER, *Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit*, Wiesbaden 1985, 424-425. Kasu: 1784eko *Ideen-etan* Herder-ek ez euskaldunak eta ez espainolak ezertarako aipatzen ditu; 1787koetan espainolak (eta hurbilago turdetanoak, keltiberiak, etab., baina ez euskaldunak); 1791koetan bakarrik, Iraultza ostein eta Iraultzak eragin dion kanbioaren ondoren beraz, euskaldunak.

nez nire zalantzak izango nituzke neuk, ezer handirik ba ote zekien euskalduneez; izendatutako aipatu duen Larramendi hori, zinez berak ezagutzen ote zuen ere bere testu propioan, ni ez nengoke batere ziur (4). Nolanahi ere Herder topiko batzuk errepikatzen mugatu da: mintzairaren antzinatea, euskaldunak Anibal-ekin joan omen zirela gerrara Italian, euskaldunen erresistentzia erromatarrei, Orreagako gudua eta Erroldanen ausiabatza. Hain zuzen holakoxe topikozaharrak nahi izan ditu behingoz gauditu Humboldt-ek eta «euskal nazioaren ideia zehatzagoa eta zuzenagoa» eman.

Zorionez, eta Justo Garate-ti eskerrak, Humboldt-i buruz ez dago luzatu beharrik. Zerbait halere esan behar eta ohartxo bi bakarrik egingo dut: bat, Humboldt-en interesa euskaldunei buruz, haren, eta orduan Alemanian beste hainbat, kezka zabalago baten barruan ulertu behar dela. Xede hori, giza ikerketak beren egoera kaotikotik egiazki zientziatara altxatzea da, gizartearen natur-zientzia bat eraikitzea (Dilthey-renta historiaren natur-zientzia egiteko bezala), zehatza eta ongi finkatua. Hau da, Kant-ondoko ezagutza ziur eta objektiboaren oinarripenaren problematikari mugitzen gara. Humboldt ez da etorri arrazoi sentimental erromantikoek eraginda: bere anaia naturalista bezalaxe, ikerketa-asmo zientifikoek erakarri dute. Hori oso ondo Humboldt-en bi gutun Goethe-ri konparatuz hautematen da: lehenbizikoa Parisetik (1798), karaktere nazional frantsesaren ikerketaz; bigarrena Madrildik (1799). Goethe-ri Euskal Herriaz luze mintzo zaion gutuna hain zuzen. Az-

(4) Euskara ikasteko nolanhiko bibliografia inguratzen gogotik aha-legendu omen zen ahalegindu Humboldt (cfr. II, 427), baina, aitortzen du, «es fehlte mir an den nöthigen Hülfsmitteln, vorzüglich an den sehr seltenen Wörterbuch, das keine der verschiedenen öffentlichen Bibliotheken von Paris (...) besitzt». Larramendiren hitzagia («sehr seltenes Wörterbuch») ezin zela eskuratu inon alegia. Piska bat zorrotz begiratzen bada, hiztegiagatik bi bider aipatu du Herder-ek Larramendi eta aipamena bietan gaizki egiten duela, erreparatu da. *Arte-a* behin zititzen du eta orduan gaizki (Herder-ek berak nahikoa adierazten du, ordea, Dieze-ren bitartez bakarrik duela obra horren berri): okerrago dena, obra honetan hain zuzen, Herder-ek baitesten duenaren kontra, bera hila dabilen «De la Poesía Vascongada» apendize bat dago, hura kontentatzeko modukoa ez bada ere. Bestalde Herder ezagututa, seguru sainar egon liteke, Larramendi benetan ikusia eta irakurria izan balu pertsonalki, askoz gehiago esplotatuko zuena bere obra ugarian, bereziki *Adrastea-n*. Itxura guztiz azken momentukoa du Herder-ek euskaldunen berri. *Ideen-etako* XIV, liburuan, III. kapituluari, esaterako Espainia guztia esaten da izan dela erromanizatu (Pirinio-herriak barne antza): euskaldunen salbuespenik ez da inon aipatzen, baina bai zilarraren garrantzia Iberiako herriok behin eta berrio konkistatuak eta nortasun-gabetuak izateko. Areago are baino, ordea, Larramendiren arabera euskarak munduari eman dizkion hitzak hainbeste eta hainbeste izanda, gehiegizkoa da, adibide bat eman nahi eta Herder-ek halakotzat aipatzen duen bakarra. *Silberhorixe* justu ez izatea Larramendirena, ez dakit zeinena baino (ez du esaten). «Er hatte tatsächlich nur einen kleinen Teil der Texte gelesen, über die er sprach», irakurtzen da in W. KAYSER, *Die iberische Welt im Denken J.G. Herders*, Ibero-Amerikanisches Institut Hamburg 1945, 16, arrazoi soberaz.

ken testu honek badu beste gauza harrigarri bat, eta da —ohar bi— euskal paisaiari erreferitzeko Humboldt-ek bertan darabilen espresaera guztia, estiloa, terminoak, gogoetak, apropos dena kalko garbi-garbia dela, Goethe-k oso erraz antzeman behar zion bezala, Kant-en KdU-ko sublimarena (5). Euskal paisaia, hortaz, Kant-en sublimaren kategoria guztiz berezian sartzen du Humboldt-ek, horrek estetika kantianoan dituen konotazio guztiekin. Desarroilotoxko bat mereziko luke puntu honek hurrengoren batean.

Orain beste gabe, horiek aipatuz gero gehienetan euskaldunen kontua sortzen dela, esandako bi gaietara noa: San Inazio eta Gernika.

SAN INAZIO

Aurten —bostgarren ehunurte famatuan— Alemanian San Inazio nola ezaguerazten duten ikusteko aitzakia ona. Kapitain espainola ote da? Inkisitore gaztelau beltza? Udal Bibliotekako biografien saila begiratzen hasi, joan den udan Kolonian, eta lehenengo liburua, lehen kapitulua, honelaxe ireki zait: «Inigo zaldun euskalduna» (6). Behin eta berriro, autoreak San Inazioaren euskalduntasuna asko azpimarratzen du.

San Inazioaren izenen eboluzioa, h.d., jatorrizko Eneko Loiolakoak nola aurrenik Inigo forma (hon ere euskotarra) zabalduago eta arruntago hartu zuen, gero Erroman Ignatius / Ignazio forma latino edo italiar bere ustetan Inigoren izen berdinak zirenak, etab., azalpena, «zen bezalako Loiolako Inigo euskalduna geratu zen halere, euskalduna eta kaparea», isten da kategorikoki. Euskal arrazaz, jatorri ezezagunaz, etab., luzatzen da gero, eta euskaldunen izakeraz. Hizkuntzari buruz, Eneko/Inigo mutikoa «euskaraz bakarrik mintzatu zen eta euskarak segitu zuen, hark benetan menderatzen zuen hizkuntza bakarra izaten», ziurtatzen digu Blunck-ek. «Egia da laster ikasi zuela gaztelania, gero frantsesa zerbait, eta ondo latina eta italiara. Baina hizkuntza horietatik, ez zuen sekula bat bera, ezta gaztelania ere, zeharo menderatu» (7). Euskalduna, beraz, goitik beharaino eta hasieratik azkeneraino.

Santu-historia eta hagiografia piadoso txikiagoetan ere aipatzen dutela euskalduntasun hori, ikusten dut. (Irakurleak zer erentzen diren, beste kontu bat da: «non dago Loiola?», galdetzen dit andre bibliotekariak, «Bizkaiko Golkon»). Euskal Herriari eta euskaldunen izakerari buruzko autoreon informazioak standarda dirudi, nolnahi ere, edo bestela kopiatu egiten diote denek bata-besteari.

Esplikazioa, zergatik interesatzen den hainbeste San Inazioaren euskalduntasuna azpimarratzea, beharbada Boehmer-en hurrengo liburuan suertatzen zait eskuartean, bilatu gabe, lehen orrietan hemen ere (8). «Jesusen Konpainiaren fundatzailea espainol bat izan zen: kultura erlijioso espainolaren mikrokosmo jator-jatorra; hura kausante eta fundatu zuen ordena mediante, Eliza Katolikoan izpiritu espainolaren nagusigoa inposatu zen; Kontrarreforma beste ezer ez da, bere ondorioetan, Eliza Katolikoaren espainolketa baizik»: horrelakoak entzuten omen dira sarri-sarri Alemanian, autoreak dionez, jesuitak zer diren edo zein esanahi duten, galdetuz gero. (Test txiki bat egitera noa, susmoak hartuta: eta, ara, *Der Grosse Herder* entziklopedia ka-

tolikoan San Inazio euskalduna da, «aus bask. Adel»; *Das Bertelsmann Lexikon* protestantean espainol soila, «spanischer Offizier») (9). Boehmer, ba, bere biografiatua salbatzeko, «izpiritu espainola»ren aurkako aurretiziei aurkatu behariko zale lehenbizi (10); gero, gainera San Inazio deus ez dela izan espainola, ahaleginduko da erakusten. Azkeneko honek badu bere arantzaxo bihurria, nahitaez euskalduntasuna eta espainolotasuna alderatzera eta kontrastatzera sarrarazten bait du, eta lehentxeago «herri-izpiritu»etan sinestunez burlatu dena, nolabaiteko herri-izpirituez kaustzen da behartuta ihardutera...

Dena dela, kontenplazio gabe burutzen du bere lana eta azkenerako benetan *gründlich* kontrajarrita dauzkagu espainola eta euskalduna arrazoi-maila bakoitz eta guztietan: geografikoki, hasteko, Euskadi eta Espainia, bi lurralde arrunt ezberdin ere baino, bi kontinente bezala dira, arras bestelakoak (11). Gaztelako lur errearen aldean, iturriak, basoak, baratzeak, artasoroak, sagastiak... Geografikoa baino ere deigarriagoa duzu, haatik, jendearen arteko diferentzia, h.d., «arrotzari kasik lurra baino are ez-espainolagoa jendea iruditzen zaio (12). Oin-

(9) Baina ez nuke esango ateratzea dagoenik arau bat horik San Inazio espainol soil bezala, eta are Santa Teresaren edo Joanes Gurutzekoaren urbiltasunean aipatzen duen katolikorik (Reinhold Schneider-ek adibidez) ez bait da falta. Segun bakoitzak nola estimatzen duen «katolizismo espainola».

(10) Oso polito, gainera: «Wer nicht unbedingt formel –und geistlich –gläubig ist, der wird es freilich von vornherein für etwas bedenklich halten, zur Lösung eines historischen Problems Geister zu zitieren, noch dazu die vielberufenen Volksgeister, die mit Recht als die unfaßbarsten Geister gelten, die es gibt». (or. 7).

(11) Statt auf endloser baumloser Ebene befindet man sich auf einmal mitten in einem wild zerklüfteten Gebirgsland, in dem fast von Minute zu Minute das Bild der Landschaft sich reizvoll verschiebt und wandelt, statt meilenweiter staubiger Stoppelfelder, ausgedörrter Heiden, toteinsamer grauer Tonmergelhügel zeigen sich zur Rechten und Linken saftige Wiesen, üppige Mais- und Rübenfelder und nicht bloß einzelne verlorene Gebüsch, sondern ganze dichte Bestände von Edelkastanien, Apfelbäumen, Nußbäumen, ganze, große, wirkliche Wälder von sommergrünen Eichen und Buchen statt erdfräbiger schumutziger Hütten und rasch wie ein orientalischer Märchentraum vorübergleitender Oasenstädte sieht man überall auf den grünen Hängen und Hülgen schmucke, von prangenden Obstgärten umhagte Einzelhöfe (caserios), dazwischen le und dann saubere altersgraue Städtchen und drunten in den tiefeingeschnittenen Tälern fast in jedem Winkel stattliche Korn, Papier- und Schneidemühlen, Holzschleiferelen, Spinnerelen, Eisenhämmer und andere mit Wasserkraft betriebene gewerbliche Anlagen. Denn an Wasser fehlt es in diesem paradiesischen Ländchen nirgends. Wasser stürzt, tost, rieselt, rauscht, plätschert, spritzt in allen Gestalten von allen Höhen zu Tal. Wasser sammelt sich ständig in rundenlichen Wolken um die bewaldeten Kuppen des Gebirges und ergießt sich bei jedem kräftigen Windstoß von der atlantischen Küste her plötzlich als Sturzregen über das ganze Land, überall Kraff und Bewegung spendend und damit Leben und frischestes Gedeihen» (or. 8).

(12) «Aber beinahe noch weniger spanisch als das Land muten den Fremdling die Menschen an, die das Land bewohnen, die kernigen, kräftigen Nachkommen des iberischen Urstammes, die sich selbst Euskaldunac nennen und den Europäern seit alters unter dem Namen Basken bekannt sind. Droben im Gebirge, wo man sie zuerst zu Gesichte bekommt, haben sie noch so häufig blaue Augen und blonde Haare, daß man im ersten Augenblick sich wohl versucht fühlen kann, sie für Nachkommen versprengter Germanen zu halten. Allein die scharf geschnittenen, eigentümlich spitzen Gestchter mit der breiten kugeligen Stirn wollen zu diesem ersten Eindruck doch absolut nicht stimmen, und auch an legitime oder illegitime Mischung mit germarnischem Blute darf man gerade hier in den am schwersten zugänglichen Teilen des Ländchens nicht denken. Aher wenn die Guipuzcoaner keine Germanen sind, so sind sie doch auch keine rechten Spanier Sie sind nicht, wie der typtsche Spanier, würdevoll langsam, sondern schnellfüßig und flink, gleich den kleinen, raschen Flüssen ihres Landes, nicht unsauber und unordentlich, sondern reinlich und nett, sowohl in ihrem Äußeren wie in ihren Wohnungen, nicht indolent und faul, sondern schnell entschossen, regsam, lebhaft, ausdauernd, unermülich bei jeder Beschäftigung, so daß es immer eine Lust ist, ihnen zuzusehen, mögen sie nun mit der altväterichen zweizinkigen Holzgabel (laja) droben an den Berghängen den steinigen Boden umgraben oder drunten vor ihren Häusern sitzend im Geschwindschritt die dicken Hanf- und Spartofäden zu Sohlen für die landesüblichen Alpargatas (Hanschuhe) zusammendrehen oder auf dem Ballspielplatz, der in keinem noch so kleinen Orte fehlt, in dem altväterischen juego de pelota sich üben. Sie wollen denn auch, obwohl sie jetzt alle spanisch verstehen, durchaus keine Spanier sein» (or. 9).

(5) Cfr. *Wilhelm von Humboldt aus Briefen und Tagebüchern*, WBG, Darmstadt 1986, 293-298. Kant-en *Kritik der Urteilskraft* 1790ekoa zen hain zuzen. Humboldt-en gutuna Goethe-ri azaroaren 28koa da, eta konpara litike, Karoline von Humboldt-ek 12an bere neba Ernst von Dacheröden-i orobat euskal paisaiari buruz idatzi dion moduarekin, Kant-en arrasto izpi gabe.

(6) «Der baskische Ritter Inigo», cfr. R. BLUNCK, *Ignatius von Loyola. Leben und Werk*, Hamburg 1947.

(7) *ib.*, 8.

(8) H. BOEHMER, *Ignatius von Loyola*, Stuttgart 1941.

Verkaufspreis 10 Pennia

Am 1. Mai Flaggen heraus!

„Pause“ in der Rüstungsanleihe

Erklärung Vincent-Auriols

Anfragen im Unterhaus

Gerechte Völkerverordnung

Zurückweisung roter Behauptungen

Erklärung Francos über Guernica

Der Sender Radio Nacional de Salamanca... Die Behauptung, Guernica sei von ausländischen Flugzeugen bombardiert worden, ist besonders gefährlich, weil die Meiste besaßige Bezeichnung eine Art besaßiges Nationalitätsbegehren...

Spanien gekommen sein. Der Minister antwortete, er habe keine Idee in der Presse gesehen, daß es sich um ausländische Flugzeuge handele... Der führende Oppositionsliberal Sir Archibald Sinclair...

Am 1. Mai Flaggen heraus!... Aus Anlaß des Nationalfeierfestes des demnächst fälligen Reichstages...

„Pause“ in der Rüstungsanleihe

Von unserem OR-Vertreter

Erklärung Vincent-Auriols

Die große politische Aussprache in der Kammer ist etwas unermittelt um eine Pause verflohen worden, und zwar auf Freitag, den 7. Mai. Diese Verschiebung wird...

abgegeben, in der er die Lage des Schachmattes im einzelnen darlegte. Aus ihr geht hervor, daß die Zahlungen des Schatzamtes für die ersten drei Monate des Jahres...

Morgenblatt

Donnerstag, 29. April 1937

Gerechte Völkerverordnung

Die sechs Geisteskräfte, die der parlamentarische Nationalsozialismus in der Reichsregierung einbrachte, haben sich in der Schaffung einer „gerechten Völkerverordnung im Staatsrecht“ einen Versuch gemacht...

Am 1. Mai Flaggen heraus!

aus Berlin, 28. April. Aus Anlaß des Nationalfeierfestes des demnächst fälligen Reichstages...

Erklärung Francos über Guernica

Spanien gekommen sein. Der Minister antwortete, er habe keine Idee in der Presse gesehen, daß es sich um ausländische Flugzeuge handele...

Erklärung Vincent-Auriols

Die große politische Aussprache in der Kammer ist etwas unermittelt um eine Pause verflohen worden, und zwar auf Freitag, den 7. Mai...

abgegeben, in der er die Lage des Schachmattes im einzelnen darlegte. Aus ihr geht hervor, daß die Zahlungen des Schatzamtes für die ersten drei Monate des Jahres...

Morgenblatt

Donnerstag, 29. April 1937

Gerechte Völkerverordnung

Die sechs Geisteskräfte, die der parlamentarische Nationalsozialismus in der Reichsregierung einbrachte, haben sich in der Schaffung einer „gerechten Völkerverordnung im Staatsrecht“ einen Versuch gemacht...

Am 1. Mai Flaggen heraus!

aus Berlin, 28. April. Aus Anlaß des Nationalfeierfestes des demnächst fälligen Reichstages...

Erklärung Francos über Guernica

Spanien gekommen sein. Der Minister antwortete, er habe keine Idee in der Presse gesehen, daß es sich um ausländische Flugzeuge handele...

Erklärung Vincent-Auriols

Die große politische Aussprache in der Kammer ist etwas unermittelt um eine Pause verflohen worden, und zwar auf Freitag, den 7. Mai...

abgegeben, in der er die Lage des Schachmattes im einzelnen darlegte. Aus ihr geht hervor, daß die Zahlungen des Schatzamtes für die ersten drei Monate des Jahres...

oharretara pasako ditugu, luzatzerik ez daukagunez, euskaldunaren abantailak. Finean, beraz, euskaldunak ez dira espainolak; eta, gainera, ez dute espainolak izan nahi ere.

Euskal Herriak sortu dituen gizandien zerrenda batek, hura nola ez den inolako «izpiritu espainol»en kabi, frogatu nahi digu. Juan dela Cosa, Elkano, Legazpi, Juan de Echaide, Machin de Munguía, Okendo, Txurruka, Zumalakarregi dira gizonok. Hau da, Euskal Herriak ekintza-gizonak eta abentureroak (13) sortzen omen ditu, ez «poetak, pentsalariak, zientifikoak, idazleak, artistak, musikoak» (14). Bilatzen genuen helmugara iritxiak gaituz horrekin: ez du ezer harritzekorik, herri honek santu bat eman duenean, santu horrek zenkusirik ez antzik izatea batere santu espainol tipikoekin, hala-nola San Pedro Alkantarako, Santa Teresa eta «izpiritu espainola»ren zinezko ordezkariak (15).

«Inigo euskalduna» da berriro titulua, apaletik hartzen dudana hirugarren liburuan ere, lehenbizikoa (16). Euskaldunok zer jendemodu garen, poeta espainolari uzten zaio hemen azalpena: «Burdinezko mendietan bizi dira, ekintzetan luzeak eta laburrak hitzetan, haien burdinez urrea irabazi bait du Espainiak erruz». Euskaldun horietakoxea duzu Inigo: txikitik euskal dantzak eta kantak ikasi ditu; esaera zaharrak, bere herriaren esperientzia eta jakinduriaren bilduma-altxorrek euskaraz da mintzo: gaztelania ikasten duenean, «espainol hori bere bizi guztian, haurtzaroko mintzaira misteriozkoaren berezitasunak margotua izango du» (17). «Bere bizi guztian, euskaldun kaskagorria eta isilkoia, izan da Inigo» (18).

Behin baino gehiagotan gertatua nuen arraz ezustean, txundituta, neure burua euskaldun bezala aurkeztu lagunartean eta diosal modura norbaltek estereotipo bitxi batekin erantzutea, irribarre adiskidetsu bezain maliziatuz. Hementxe aurkitzen dut iturria (San Inazioz diharduen hainbat testutan ikus daiteke hori gero): «Jakizu, Aita Inazio pertsona zintzoa eta birtutetsua dela, baina euskalduna da: behin kaskoan sartu zaiona..», etab. la txapelak bezain euskalduna dirudi burugogorkeriak (txapela = *Baskenmütze* alemanez). «Haritza eta burdina dira, Inazio eman digun herri honen sinboloak», borobiltzen du kapitulutxo iruzkinak (19).

San Inazioaren euskalduntasunak ez ditu noski berdin interesatu haren biografia denak. Bestalde, ezagutzen dituen marko kulturaletan pintatzen du bakoitzak bere laukia, eta normala

(13) «Der Krieg, die Schifffahrt, die Eroberung, die Entdeckung, die Organisation schwieriger, gewagter, weit ausschauender Unternehmungen, das war von jeher die starke Seite der starken Männer von Guipuzcoa und, was andere abschreckt oder einschüchtert, die Gefahr, das Risiko, das Abenteuer, der Kampf mit feindlichen Menschen und Naturmächten, —für sie gerade das Element, in dem sie sich am wohlsten befanden und alle Kräfte ihres Gelstes und Gemütes am besten zur Entfaltung kamen (or.11).

(14) Blunck-ek orobat: «Er ist weniger ein Mensch der Wissenschaft und der geistigen Tiefe —seine Bildungsfähigkeit ist begrenzt, sein Intellekt etwas hartschädelig—, aber was er gelernt hat, sitzt unverrückbar fest und wird mit größter Geschicklichkeit angewendet» (or. 7).

(15) «Darnach wundert man sich nicht, daß auch der einzige große Heilige, den dies Völkchen Spanien und der katholischen Kirche geschenkt hat, so ganz anders aussieht wie die großen Heiligen Kastiliens, daß er nicht wie der heilige Peter von Alcántara, die heilige Teresa de Jesús und andere klassische Vertreter des «spanischen Geistes» in der Religion, ein weltabgewandter Mystiker, Denker, Dichter oder Schriftsteller war, sondern ein Mann der Tat, ein Genie der Organisation, ein getstlicher Konquistadore, der selbst die Kontemplation in den Dienst der Tat zu stellen wußte» (Boehmer, or. 11).

(16) «Inigo der Baske»: L. von MATT-H. RAHNER, *Ignatius von Loyola*, Würzburg 1955.

(17) «(...) dieses Spanish des Inigo bleibt zeitlebens von der Eigenart seiner uralten, geheimnisvollen Kindheitssprache gefärbt».

(18) «Ein eigenwilliger und wortkarger Baske ist Inigo Zeit seines Lebens geblieben» (or. 25).

(19) Hugo Rahner beste hamaika lan bikainen autorea da orobat San Inazio buruz eta batez ere in *Ignatius von Loyola als Mensch und Theologe*, Freiburg 1964, luze-luze dihardu Loiola familiaz, orduko euskal gizarteaz, Eneko/Inigo/Inazio izenen gorabeheraz, etab.

dirudi Alemanian kultura espainola ezagunagoa izatea edozeinentzat euskalduna baino, barne direla San Inazioaren biografiak berak. L. Marcuse-k bere liburua (20) sinesgabeziatik idatzi du apropos (21), baliapide naturalez argitzen saiatuz, erlijiosoz edo teologikoz barik (miraria, grazia, konbertsioa), Loiolakoaren fenomenoak. Kuidadu gabe dauka halere euskaldun edo espainolitasunaren arazoak: planteamendu hori espresti baztertu egiten du (22), naturalista gisa jokatu nahi izan arren bere metodoan, berea pertsonaiaren psikologia individual partikularrean barneratzeko saioa delako. San Inazio, aurren-aurrenik, herria da: ez herriren, klaseren, aroren baten ordezkaria.

Ez bait da erraza alabaina San Inazioaren bizitza takean-potean euskal gauzak eta lagunak jo gabe kontatzea: familia, etxea, haurtzaroa, etab., batik-bat (23). Baina Iruñean ere Marcuse-rentzat Inazio «der baskische Offizier», izango da; soldadutxoak, «makinak bilakatzeko», ariketa militarretan aspergabe, «die baskischen Bauernjungen». Zauriturik, Altsasuan barrera etxera andetan daramatenean, berri-berri ageriko zaio eusko lurra eta paisaia, Gaztelara muttikotan aldeginari (24). Gero, Arantzazun, Alkalan, Salamankan (25), Parisen, Azpeitian berriro eta berriro Iruñean (26), bidaian itsasoz nahiz lehorez, Erroman, izango da zer aipaturik hamaika euskaldun-kontu Inazioaren inguruan. Monte Cassinon gaixo bat zaintzen dago, baina gaixoa beti goibel. Piska bat animatzeko, Inaziok «euskal dantza nazionala» dantzatzen dio. (Bere hankarekin, ez dakit). Behin eta berriro, San Inazio esateko, «der Baske» irakurtzen da: «der vornehme Baske», «dieser baskische Betler», «die Seele des Basken»; halaber «der baskische Student Amador», «der baske Francisco de Yasu»... Baina egia da, euskalduntasuna inon ez da esplikazioaren elementu bilakatu: bai, alderantziz, Quixoterekin konparazioa, esaterako (27). Eta Marcuse-k Magallaes-i portugesa deritzon artean, Hernan Cortes Iñigoren herikide kontsideratzen du (28).

Dena dela, ikusten da, gure gaia hori bait da, euskaldunon berri jakiteko, edo gutxienez entzuteko, parada aproposa izaten dela beti San Inazio

GERNIKA

Euskal Herriaz iharduteko beste aukera bat beti Gernikak ematen du Gernika gai bezala hartuta, bonbardaketak berak urteotan sortutako literatura ugaria legoke, batetik (29); Picas-

(20) L. MARCUSE, *Ignatius von Loyola. Ein Soldat der Kirche*, Hamburg 1956.

(21) «Dies Buch stellt also den Loyola nicht im Lichte des Glaubens dar, den er bekannte, sondern im Lichte des Unglaubens, den er stiftete».

(22) «Der eine führte Loyolas Werk auf seine baskische Rasse zurück (...). Der andere fand den Schlüssel zu seinem spezifischen Christentum im spanischen Nationalcharakter» (or. 242).

(23) L. Marcuse-ren deskribapeneko euskaldun begiuridin, horailak, Boehmer-enekoaz bategiten du, ez dakit nondik: «Biondhaarige, blauäugige, spitzgesichtige Basken mit breiter, kugliger Stirn und behenden Gebarden ...».

(24) «Wiaviel schöner ist das baskische Bergland als die kastilische Wüste» (or. 23)

(25) «Doch stolz konnte der Loyola auf seme baskische Herkunft hinweisen; diese ursprünglichste Rasse, dieses judenreine Landchen ist gewiss unverdächtig» (or. 89).

(26) Euskarari Gipuzkoako «dialektoa» deritzo (or. 135).

(27) Ib., 42.

(28) Ib., 28.

(29) LANGE, P.-A., «Guernica-Legenden», in: *Svensk Tidskrift* 44 (1957) 270-282, MAIER, K.A., *Guernica, 26.4.1937. Die deutsche Intervention in Spanien und der «Fall Guernica»*, Freiburg 1975. THADDEN, A. von, *Guernica. Greuelpropaganda oder «Kriegsverbrechen»? Ein Bombenschwindel*, Leoni 1982. ZAYAS, A.M. de, «Guernica im Lichte neuerer Untersuchungen», in: *Wehrforschung* 6 (1975) 183-187. —Schriften der Bibliothek für Zeitgeschichte, Weltkriegs— bücherei: Stuttgart, Band 26: *Der spanische Bürgerkrieg, Banal 2: der militärische Konflikt, Literaturbericht und Bibliographie*, Klaus-Jörg Ruhl, Bernhard & Graefe Verlag Koblenz, 1988.

so-ren «Gernika» dela-ta egokitu ohi dena, bigarren (30). Bide bata zein bia utzi eta bere egunean bonbardaketa prentsak nola aipatu zuen bakarrik begiratuko dut. Hori ere ez —ausaz egitea oso polita litzatekeen, egin gabe dagoen— ikerketa metodiko gisa, axal-axaletik baino. Zer jakin zuen publiko alemanak, bonbaketaren egunean, gertatu zela Gernikan? Zer jakin zuen, kasu honetan, Koloniako publikoak, esate baterako?

Prentsa «libre»rik aspaldian ez zegoen 1937an Alemanian, baina albistaritza «pribatu» apur bat geratzen zen oraindik «berdinu» gabe, hots, ez Alderdikoa. Informatibo nolabait «menpegabe» hauetako egunkari batean jarraituko dut, nola informatu duen (edo ez duen): «Koloniako Egunkaria», *Kölnische Zeitung* (31). Hiri bereko *Westdeutscher Beobachter* (nazia) konparazio aldera hartzen bada, aipatu egunkari hori liberala-edo kontsidera liteke apika, bere intentzioan behintzat. Goizeko eta arratseko agertaldi bi zeuzkan. Ia zenbakioro ematen du gerrako berri.

1937ko apirilaren 26, astelehena, albiste txiki desberdinek fronteko azi-orraziek. Hood gerrauntziak babestuta, Bilbora merkante ingelesak janariz kargatuta sartu direla, informatzen da, blokada apurtuz; Franco-ren protesta zindoa Gobernu Britaniarraren aurrean, Nazionalak Elbar-Durango errepidea moztu dute, Berrizera inguratuz: Eibar isolatuta geratu da boltxebikien esku (kasu terminologiar). Nazionalak Elgeta hartzean 500 mertzenari boltxebiki tropa nazionalen aldera pasa da «Viva España» oihuka. Hegazkin nazionalak Bilbon bi merkante boltxebiki bonbardatu dituzte.

Egunkariak zeharo terminologia ofizialean informatzen du: Franco eta bere Jendea «nazionalak» dira (Armada Espainola ere bai), besteak «boltxebikiak». Euskaldunik oraingo ez da ezertarako aipatzen. Ez dago.

27, asteartea: (goiza) Merkanteen gorabeherak jarraitzen du. Orain Ingalaterrak protestatzen du, España gurutzeron nazionalak merkante bat hiru miliako zonatik at geldiarazi nahi izateagatik. Ingalaterraren jarrera neutrala aldatu egin dela, oharitzen da, nazionalen defaboretan. Arrazoa Queipo de Llano-ren purrustadak inon bide dira Sevilla Irratian Lloyd George-n, Mr. Eden Atzerri Ministroaren eta Canterbury-ko Artzapezpi-kuaeren aurka. Arratseko edizioan istilu berri batek lehen orria okupatzen du: Almirante Cervera-k geldiarazi nahitako beste unti bati, ikatzez kargatuta orain, gerrauntzi ingelesek babesa eman diote aurrera jarraitzeko, Bilbo parean. Donibane Lohitzun-en beste barku gehiago omen dago kargaturik, Bilbo-rantz ateratzeko gertu, baina Durango aldeko guduen emaitzen zain, eraman Bilbora bai eta gero nazionalen eskuetan eror ez dadin kargoa. Bigarren orrian Armada Espainolaren komunikatua birrekoizten da: Bizkaiko fronte boltxebikia apurtuta; Irun-en egin zuen bezala, Eibar-ko auzo oso bat kiskalita utzi du arenoak. Kontaezin adina material gerrako erori da nazionalen eskuetan. Zein bere aldera burrustan ihesi doa arerria.

(30) Picasso-ren erakusketak, azalpen eta ikerketak, eskolako material pedagogikoak, etab., informazioa zabaltzen duen hainbat elementu dago. ARNHEIM, R., *Picassos Guernica-Entstehung eines Bildes*, Munich 1964. (*Times*-eko bonbaketaren informes jasotzen du). FISCH, E., *Picasso -Guernica*, Freiburg 1983. Hitzaurrean —«Die Situation»— Kondor Legioaren interbentzioaren aurretiazko sozial eta politikoak azaltzen dira eta bonbaketa nazi-alemanaz honela dio: «Am 26. Apr. 1937 flog die Legion Condor einen Grossangriff auf das ungeschützte baskische Städtchen Guernica und zerstörte es völlig - der erste totale Luftangriff in der Geschichte der Menschheit». Lauki famatuari buruzko materialen erakusketa bateko katalogo ederra dago: W. VIRMOND, *Guernica. Kunst und Politik am Beispiel Guernica*, Berlin 1975.

(31) Eskertu beharrean nago Stadtbücherei Köln-eko Artezkari Guido Weyer Jaunari eta bertoko zerbitzuetako pertsonalari hango hemerrotekan lan egiteko erraztasun eta laguntzengatik 1991ko uda partean.

Bonbaketaren lehenengo aipamena 29an, ostegunean eta honelaxe dator lehen orrian, titular handitan, Franco-ren deklarazioa ikusten da aurrenik, ukatuz hegazkin estraineroek nazionalen zerbitzuan Gernika bonbardatu dutela (32). Triskantzaren monopolioa Irun eta Eibar triskatu dituztenena da. Azalpen luze batek darraika Euskal hiritxo hori euskaldunen santutegi nazional antzeko bat da, hor dagoelako euskal askatasunaren simbolo arbola, zeinen gerizpean biltzen bait ziren Bizkaiko Herri Batzarrak. Sei mendetan zehar eusko erregeek (sic!) arbola horren azpian zinegin zituzten euskaldunen askatasunak. Haritz zahar horren esanahitik sortu da euskaldunen himno nazionala ere «Gernikako Arbola». Tradizio horri begiratzen dio, jarraitzen du komentariak, Bilboko Agintarien baitespenak (baina ez baitespen hori zein izan den, ez Agintari haiek zeintzu diren, argitzen da), euskal frontean erresistentziaren izpiritua gotortzeko, ateka kritikoan bait dago aurrera-kada nazionalarekin. «Euskadiko Gobernuak hitz batekin ere aipatzen ez duena, Eibar hondamendi bat bere jendeak bihurtu zuela da», bukatzen du komentariak bapatean polemikan parte hartzera sartuz. «Tropa nazionalak gar-ltsaso bat eginda aurkitu bait zuten herri hori han sartzean, erretiradakoan anarkistek etxe askon su eman zitelako eta gerra-industriako fabrikeri batez ere».

Bonbaketaren berri munduan prentsa liberal frantsesak eta ingelesak zabaldu zuen, *Times*-ek bereziki. Nazientzat oso erraza izan zen salatariak beren betiko eran kontrasalatzea: SEMIT da TIMES atzekoz aurrera irakurrita, hori nahikoa arrazoi da. Kalumniazko informazio guztiaren iturria juduak dira. (Denborarekin arrazoi zehatzagoak asmatuko dira: zergen igotera ezkutatzeko sortu dela Gernikako bonbaketaren eskandaloa, etab.). Koloniako Egunkariak hori baino serioagoa izan nahi luke: zer duda, prentsa ingelesaren informazioak urduri jarri duela. Zertzelada eta ñabardura txikiei oharitzen bazaie, polita da erreparatzea nola isladatzen den, batetik nolabait beregaina agertu nahi lukeen informazio burgesean, presio nazi ofiziala bestetik. Azkenean eritzi ofiziala isurtzen da. Baina lehen beti naturaltasun guztiarekin boltxebikiak aipatzen zen lekuan, orain euskaldunetz hitzegiten da, esaterako. Aldatu egin da tonua, hizkera. Informazio molde diferente bat entseiatzen da. Alor kurioa ikerketatxo baterako. Hau dena, alabaina, lupaz dabilenari bakarrik ageri zaio: eguneroko irakurle presakakoak apenas igarriko zuen, lerro artean azpimezu birfindu bat bezala iragazi nahi zitzaionik. Ondorengo egunetan, gainera, Koloniako Egunkaria, ez da juduez mintzatuko Alderdiko prentsa bezala, baina koru «antimarkista» europar guztiaren musikari gogotik atxeki zaio berrirori. Ezer ez dagoela garbi Gernikan zer gertatu den, zeinek egin duen, etab., eta prentsa marxista dela garraisika dabilena probokazio bila.

29 arratseko edizioan lehen orriko titulu nagusia berriro Euskadiko gerrakoa da: ez, ordea, Gernikan buruz, baina euskal haurren garraioaz estrainerora.

30, ostirala: tropa nazionalak Gernika okupatu dutela, informatzen da. Gerrako material ugari aurkitu dutela, etab., estereotipoak errepikatzen dira, eta —agentziako tonuan berriro— milizia boltxebikien brigada oso bat preso harrapatu dela bertan.

(32) Egun bereko *Westdeutscher Beobachter* ohizko merdara nazi gaiztoan espresatzen da «Gegen die bolschewistische Lügenhetze: Guernica nicht durch nationale Spanier zerstört». Informazioa polemikarekin hasten da, beraz. Arratsaldeko edizioan, polemikari jarraituz, Eibarren erretiradaz titulu plastiko bat: «Moskaus Mordbrenner in Eibar Brandkommandos vernichten das baskische Städtchen». Polemikak tonu zakarrean jarraitzen du hemen: «Entlarvte Greuelhetze. Unglaubliche Lügenmeldungen der englischen Presse über die von den Bolschewisten zerstörte Stadt Guernica».

Egun horietako zenbakietan hainbat beste albiste eta iruzkin argitaratu du Gernikaren inguruan Koloniako Egunkariak, Londongo korrespontsalak hango prentsan bonbaketak izandako oihartzunaz informatzen du (4. 29); berdin egiten du Parisekoak (4. 30). Albiste Bulego Alemanaren («Deutsches Nachrichtenbüro») bidali bereziaren informe bat Eibar-ko txikioz honela bukatzen da: «Ikaragarria da hiri hil honetako hutsa. Boltxebiekiek erretiradan, beren etxeetatik aldegin nahi ez zuten biztanle denak, armak eskuan behartu dituzte mendietan gora beraiekin ihes egitera Bilbora. 15000 biztanletatik hirian ozta-ozta 500 geratu dira».

Biziro polemizatzen da bonbardaketa hegazkin estraineroerori egotzi nahi omen dien prentsa «marxista»rekin; baina baita Parisen esangura berean deklarazioak egin dituen Euskal Delegazioarekin ere: «Kriminalak bakearen aurka», omen dira kontu hori zabaltzen dabiltzan horiek denak (polemika guzti honetan Koloniako Egunkariak inoiz ez du esan, estraineroak hain zuzen alemanak izan zitezkeenik!), gerra internazionalizatzeke arriskua sortzen ari direlako beren «agitazio ganoragabeaz».

Ez diogu jarraituko polemikan. 30 arratseko artikuluko polemiko batek bapatean dardar eragin dit halere goitik behera, zor diot aiputxo bat «Nola izan zen Gernika konkistatua» titulu handi deigarritz, artikulua Gasteiztik telegrafiatua da gerra-korrespontsalak. Korrespontsal honek bere begiekin ikusi omen du, gorriek, supitz-bonbez nola Gernika kiskali zuten. Gertatzen dena da, Eusko Jaurlaritzak jakin ere ez dakiela, bere jendea non eta zer dabilen. Horren frogara edo, zuzen asmatzen badut (korrespontsalak truko bat darabilela, iruditzen bait zait) berak Durangon Bilboko bi penodista galdu ikusi dituela preso, kontatzen du: bat, Bordeleko egunkari «Petit Gironde»ko korrespontsala; bestea, frontea ikuskatzeko haren esku Eusko Jaurlaritzak ipinitako autoaren xoferra eta erakuslea. Jaurlaritzak oker informatuta frontearen lerroaz, ustekabearen nazionalen lurretan (Gernikan) sartu eta harrapatuak bi-biak... Bigarren «beste» hori, korrespontsal alemanak ikusi eta zein ote zen axolatu ez duen ezezagun apal hori, Lauaxeta izan da noski (34), frankistek, baina ez Granadan, fusilatu duten poeta bizkaitarra.

Gernikako bonbatzaileei buruz argi eta garbi mintzatu ahal izan diren alemanak, emigrazioakoak bakarrik izan dira. Alegia, literatura debekatua (35).

F.C. Weiskopf idazle emigrante txeko-alemanak anekdota hau kontatzen du: naziek Paris okupatu zutenean, Picasso-ren atelierra bisitatzera joan omen zen Gestapoko ofizial bat. «Gernika» ikustean: «Zuk egin duzu hori?», galdetu omen zuen. Eta, «Ez, hori zu(e)k egin duzu(e)!», erantzuna zorrotz jaso (36).

BI AZALPEN OROKOR

1933ko apirilaren 23an liburu debekatuen zerrenda beltz bat atera zuen aginte naziak. Maiatzaren 10ean Berlineko

(33) Alemanak errudun posibletzat bakarrik «Deutscher Dienst» (Zerbitzu Alemanaren) «Reuter und Guernica» artikuluko pozointsuaren birproduzioan (4.30, arratseko edizioa) izendatzen dira aurreneko, eta uste dut azkeneko, aldiz.

(34) Ik. LAUAXETA, *Olerki Guztiak*, Bilbo 1985, Aita Onaindiaren Sarrera, 18-19 or.

(35) Adbz., *Sozialistische Aktion. Organ der SPD*, Karlsbad, Mai 1937: Agirre Lehendakariaren eta Picavea Pariseko Euskal Negoziatu artekariaren azalpenak publikatu ditu.

(36) Euskaraz osoki eman ezinezko hitz-joko bat dago alemanean: «Haben Sie das gemacht?»- «Nein, das haben Sie gemacht!». Ik. R. DREWS -A. KANTOROWICZ (ed.), *Verboten und verbrannt. Deutsche Literatur 12 Jahre unterdrückt*, Berlin 1947, 173.

Opera Plazan eta beste herrialde-hiriburu eta Unibertsitate-hiri gehienetan, Goebbels-ek «zaborra eta putzileria» («Schmutz und Schundliteratur») entzitzeko liburu-metak erre ziren sutan. Th. eta H. Mann, S. Freud, Einstein, Marx eta Gorki, Heine eta Voltaire, Max Brod, B. Brecht, etab., lagun handion alboan, madarikazio naziaren eta suaren ohorea liburutxo apal batek ere irabazi zuen: *Ein Pyrenäenbuch*, K. Tucholsky-rena (37). Izpiritu gozoko bidazti baten inpresioak Euskal Herrian. Baina liburutxo hori beste batean aipatu nuen.

Industria handi bilakatu da turismoa eta, Patagonia bezalaxe, txangozaleak Euskal Herriaz edozein agentzian aurki dezake informazioa. Baina ADAC-ren bidai-mapetan, esaterako, Ipar Euskadiri buruzko materialik badago polit askoa, He-go Euskadiri buruz deus ez.

Gehien-gehienbat Ipar Euskadira begira ondua dago, eza gutzen dudana Euskal Herriaren azalpen orokor ederrena ere testuz nahiz ilustrazioz: *Mein geliebtes Baskenland* (38), Nire Euskadi maitea. Liburu maitekiro egina, bai sarrera (Amunategui), bai testua (Hennequin) eta bai argazki paregabeak (Jalain). Aitzin-Solasak, beharbada gehitxo, iparraldean usu aurkeztu ohi den Euskadi folklorikoa eskaintzen du, eta ohi den estilo literarian «Herriko plaza, eliza, pelotalekua eta hilerria, eremu estu honetan higitzen da euskaldunaren bizitza, Ameriketara ez badago behintzat». Lanik, beharbada ez da egiten. Gure ekarri kulturean dantzak, piperrada eta pelota gailentzen dira. Pelotari, bereziki, gure esentzia nazionalak erakusten dira: bizkortasun eta arintasun fisikoa ezezik, euskal adiurrearen barneko bi indar edo instinto nagusiak, borroka eta apostu zaletasuna alegia. Halere bakezalea eta individualista da euskalduna. Bakarrik, argitzen du segituan: «euskalduna euskal naziokoa da partaide, eta horregatik ez du ulertzen beste nazio batek zer sartu behar duen muturra bere arazoetan». Euskalduna bakezalea dela, ez dago nonbait inpuneki esaterik honez gero, derrepente esplikazioaren bat eman behar izan gabe.

Ez da asmatzen erraza izaten historia batean biltzea gure sei (edo zazpi hobeto, historian) euskal herrialdeak. Azalpen eta laburpen historiko oso trinko eta oso egokia da, ezagutzen dudana onena seguru asko, aipatu liburuan B. Hennequin-ek burutu duena, ikuspegi politiko eta nazional zehatz definitu batean planteaturik eta garbi mintzatzea konplexu tonto gabe arriskatuz, informazio masaz bete-betea eta sentigarritasun finez idatzia halere: hemen erakusten da behinenik tituluak agintzen duen «Euskal Herri maitea». Tamalez, laburpen bat laburtu, ezin da ongi.

Txalotu bakarrik egin nezake hemen. Historia bakarrik ere ez bait da, euskalduntasunari buruzko guztiaren aurkezpena baizik: jatorriaren arazoa, odol-grupoak, geografia eta paisaia, artea, erlijioa eta sinbolismoa, zer ez?, 36 orrialde paregabe-tan. Etxean bertan ere ez dut uste antzeko ezer daukagunik.

Ezagunagoa, euskaltzaleen artean bederen ia klasiko bat, beste azalpen orokor bat dago alemanez: K. Bouda Irakaslearen *Land, Kultur Sprache und Literatur der Basken*, h.d., «Euskaldunen lurra, kultura, mintzaira eta literatura» (39). Puntuz-puntu, tituluaren aipatzen diren gai guztiak argitzen dira banan-

(37) Zerrendan Peter Panter-ena bezala dator: Tucholsky-ren izenorde ezberdinetako bat zen hori. Tucholsky-k emigratu egin behar izan zuen eta haren suizidioari alusio eginez, nazien ihesi azkenean «nondik atzera itzulirik ez dagoen» tokira emigratu zuela, idatzi zuen dotoreziaz E. Kästner-ek, haren idazki laburren bildumatxo baten lehen argitalpenean nazismoaren ondoren, hitzaurrean: K.T., *Gruss nach vorn*, Berlin 1946.

(38) Bonn 1980, 143 orrialde: Eirleitung von Francis Amunategui, Begleittext von Bernard Hennequin, Photographien von Francis Jalain.

(39) Erlanger Wissenschaftliche Beiträge, Philologische Reihe Nr. 5, 1949, 20 orrialde.

banan: geografía (Euskadi biak eta zazpi herrialdeak) eta klima. Kultura: alegia, euskaldunak bizi ohi dituen herriaren eta etxearen deskribapena, etxearenean artoski pausatuz. Kirolak. Emigrazioko Euskal Herria: etxean dagoen baino euskaldun gehiago bait dabil munduan barrena. Historia. Boudak euskal izen garbitzat dauzka Burdigala eta Kalagurri (Bordeaux eta Calahorra). Mundu Gerratik berehala idatzia, omenaldi bat egiten dio autoreak euskaldunen berdintasun sozialan eta beste herrienganako begiruneari bake-bakean, biotan «herri bakarra» Europan eritiziz Euskal Herriari bere gisan (40). Edonola ere K. Bouda hizkuntzalaria da eta hizkuntzaren kontsiderazioan murgiltzen da ia denbora guztian: euskalkiak, euskara zein tipologiatako mintzaira ote den (41), ahaidetasun posibleak, etab., benetako bitxikerietaraino azalpen orokor baterako (42).

Egunotan hasiera doanez Bilbon Nazioarteko Dialektologia Kongresu bat, beharbada gogora genezake, Bouda-ren hipotesian, bizkaitarrak eta xuberotarrak, euskalkiei erreparatzen bazaie, behiala elkarren auzo eta harreman estuetan bizi izanak direla, tartean gero beste leinuak sartu direlarik bi haiek urrunduz elkarrengandik (43).

BI GIDALIBURU SANTIAGO BIDERAKO

Era honetako liburuetan ere informazio orokorra eman ohi zaio arrunt bidaztiari Euskal Herriaz, baina jeneralean arreta gehiago jartzen zaio arteari eta arkitekturari, jendeari-edo baino. Beti binaka segitzeko, gai honetako literatura dextetik bi gidaliburu turistiko hartuko dut. Biak liburu handiak dira, baina Euskal Herriari dagokiona logikoki ez da zaitxo bat baizik liburu hasieran.

Aurrena, 1967koa, Fraga Iribarne Informazio Ministroaren laguntzaz egina, H. Domke-rena (44). Jada bidearen —hiru bideen— historiarekin hasten zaigu informazio geografiko eta historikoa. Laster Aymeric Picaud-ekin egiten dugu topo. Garrantzi handikoa Orreagako historia guztia da, Santiagoko legendaren mami-mamikoa, haren esangura ideologiko edo mitologikoa autoreak ongi adierazten duela. Hainbat herri, herritxo, eliza eta kaperaren berri ematen da, Nafarroakoa batez ere (45). (Iruñean bere burua «Espainiaren Jeinua»^{ri} —*dem Genius Spaniens* begiz-begi aurrean sentitzen den autorearentzat, Nafarroa behiala Erresuma bat izan zen, denborarekin iparralde Frantziak kendu omen ziona, hegoaldeak «espainola izaten» jarraitu zuen artean: horrela ere ikus liteke agian historia, Fragaren beka batekin). Izpiritu txit eraspenez espainolean ida-

(40) «Das baskische Volk ist das einzige in Europa, das weder die früheren Klassenunterschiede unserer Kulturstaaten zwischen dem 'gut angezogenen Herrn' und dem «Arbeiter» gekannt noch wegen der ungeschriebenen Gesetze aus Achtung vor dem Nächsten undenkbar kriminelle Vergehen gesehen hat» (6 or.).

(41) «Im Baskischen scheinen zwei widersprechende Tendenzen des Sprachbaus miteinander zu streiten. Man könnte sie kurz die uralische und die kaukasische nennen» (10 or.).

(42) Die älteste, bis jetzt letzte greifbare Schicht des Baskischen glaube ich im Tschuktschischen in der Nordostecke Sibiriens an der Bergringstrasse gefunden zu haben» (13 or.).

(43) «(...) Wohi aber ergibt sich aus dem Zusammengehen der westlichen und östlichen Mundart, dass sie einmal in engerer Nachbarschaft gestanden haben müssen und ihre Sprecher, wohl ein Volkstamm, dadurch auseinandergedrängt worden sind, dass sich andere baskische Volksgruppen dazwischengeschoben haben» (9 or.).

(44) H.DOMKE, *Spaniens Norden - Der Weg nach Santiago*, Munich 1967.

(45) Nafarroako paisaia zoragarriak mira-mira utzi du: «Die Landschaft Navarras steckt voll gros ser Impressionen. Fragte man mich, wo hat Gott mit der Schöpfung begonnen, ich würde sagen: hier. Es ist ihm am meisten eingefallen. Diese Region überrascht durch alles, durch die Weiträumigkeit der Taler, die bizarre Kontur der Berge, die jede der grossen Strassen begleiten, den Wechsel der Vegetation, den Zauber der Dörfer» (86 or.).

tzita dago liburua: ez bait da bakana izaten izpiritu hori aleman batzuen artean. Dena dela, pelegrinoen garaiko euskal kanta bat ere badakar, euskara/gaztelania nahastuzkoa, iragan denboren hondar bat herri-folklorean gordea.

Oraintsuagokoa, W. Schäfke-rena da bigarren aipatzeko gida (46), arte eta bidai gidaliburu Du Mont argitaletxe prestigiotsukoa, argazkiz eta marrazkiz, mapaz eta planoz bikain hornitua. Berrito Santiago bideko informazio historiko eta artistikoa franko eta ondo ematen da. (Orreagak, Zangotzak, Lizarrak, adibidez, kapitulutxo bana dute, ez Iruñeak bakarrik). Berrito ere interes handia ditu Karlomagnoen eta Erroldanen mitoak. Ez da ahazten orainaldia: Gasteizek izen bi duela eta (Gasteiz / Vitoria), hiriak hainbat garaipen ospatu ahal izan duela mendeetan, irakurtzen dugu, «baina, Euskal Herri guztiak bezala, oraindik ezin aurkitu izan du bakea» (47). Teinka politikoaren islada gehiago ere bada orrien artean.

Jendeak eta izpirituak, bakoitzak bere erara ikusten ditu nonbait. (Egia izango da, izpirituetarik, herrien izpirituak direla hautemangaitzenak). San Ferminak eta Hemingway aipatu ondoren, «urteroko erritual honetan —egiten du komentarioa— Jesuiten Ordenaren errigoreko edo euskal mogimendu independentistaren kontsigna eta ekintza fanatikoetako euskal seta («Eigensinn») berbera adierazten da» (48). Gure karaktere nazionalaren agerpenak: erlijioan, politikan, jaietan. Alegia, San Inazio, ETA, San Ferminetako entzerrak.

Era honetan, San Ferminetik San Inaziorengana, gure bidaitxo paperetatik borobiltzen dugu, euskaldunoi buruz obligatua dirudien ezaugarria birraurkituz: seta, burugogorke-ria.

«VON DENEN KEINER SPRICHT»

«Inork hitzegiten ez duenak haietaz», inork ez dituenak aipatzen, gogoratzen, aintzat hartzen: liburu bat dago alemanez titulu horrekin nazio txiki (edo ez hain txiki) Estatugabeei buruz (49). Kapitulu batek hain zuzen nazio horiek eta prentsa jorrazten du. (Euskaldunok ere badugu geure kapitulua).

Denok badakigu, gurea bezalako nazioekin zer problema dagoen informazio munduan. Hasieran esaten nuen bezala, informazioa egon, dextente dago Alemanian Euskal Herriaz han-hemen sakabanatuta. Baina haizeak eramaten du informazioa, buruan edukitzen diren apal eta kutxatxoetan leku jakin bat egunean eguneko berri horrentzat ez badaukazu ordenatu eta gordetzeko. Eta nazio isilduontzat horixe ez da edukitzen. Euskal Herria, aleman arruntarentzat, han Espainia aldean dagoen zerbaite da, nik uste: eta Espainia aldean harentzat batez ere dagoena, eguzkia da. Gure problemak ez dira haren problemak.

(46) W. SCHAEFKE, *Nordwestspanien - Landschaft, Geschichte und Kunst auf dem Weg nach Santiago de Compostela*, Kolonia 1987.

(47) lb., 79.

(48) lb., 24.

(49) T. ZUELCH (ed.), *Von denen keiner spricht - Unterdrückte Minderheiten von Friedenspolitik vergessen: Kurden, Basken, Chicanos, Indios, Meschier u.a.*, Hamburg 1975.